

Haur eta Gazte Literatura

Moradero

Testua: Gus Jimenez.

Irudiak: Nùria Fortuny.

Elkar, 2014



Denbora irabazten den tokia

HAUXE DA, oker ez banago eta liburuan ageri den informazioaren arabera, Gus Jimenezen lehen lana. Alde horretatik ez dugu idazlearen aurreko erreferentziarik, eta horri gehitzen badiogu liburuaren izenburuak ez duela aparteko pistarik ematen... zaila gertatzen zaigu liburuaren nondik norakoa jakitea. Nùria Fortuny ilustratzaile katalanaren irudiak, aldiz, fantasiako mundu batera eramaten gaituela dirudi. Bestalde, kontrazaleko testuak ederki laburtzen du nobelaxo honen muina.

Jimenezek gaur egun ohikoa den egoera batetik abiatzen du istorioa, neskatala batek amari gutun bat igortzen diola, harrituta, oso-oso urrutitik datorren eskutitza delako, faturek eta propagandak gure gutunontziak betetzen dituzten garai honetan gutun bat, “Oso urrutitik dator, hegazkinean etorri da”.

Gutun horrek June eta Neliseren bizitza aldatuko du zeharo. Neliseren aitak idatzitako testuari esker neskatoak aita baduela deskubrituko du; amak, aldiz, urtetan desagertutako gizonaren berri izan.

Lehen kapitulu labur horien ondoren Moradero uhartera iristean, hango bizitzaren berri emango du Saalek, Neliseren aitak. Eta kontaketa horrek betetzen du liburuaren zatirik handiena, eta kontaketa onduz ulertu ahal izango dugu zergatik ez zen bueltatu Saal alaba jaiotzean, zergatik eman dituen urte batzuk desagertuta,

zergatik iritsi den hain berandu Moraderotik bidalitako eskutitza.

Eguneroko bizitzaz eta gauza guztiak korrika eta presaka egiten ditugun mundu honetaz mintzo da Gus Jimenez ipuin fantastiko honetan; Moraderoko biztanleek denbora galdu beharrean irabazi egiten dute, astia dute gauza asko egiteko patxadaz, berriketarako geratuz, paisaia ikusiz, lasaitasun osoz. Eta hori guztia erloju bati esker: “Zuretzako oparia da –argitu zion alkateak (...) Demeter erlojugileak egindako horma-erlojua da. Makina benetan miresgarriak dira gizon honek egiten dituenak”.

Zenbaitetan liburuaren narrazioak ere Demeter erlojugilearen erritmoarekin bat datorrela dirudi, astiro eta ezer gertatzen ez den egoera dirudi; amaierak, baina, dena argitzen du, baita kontakizunaren moteltasuna ere.

Liburuaren egitura, hasieran eta amaieran June eta Neliseren presentzia eta kontakizunaren gune nagusia, Saali Moraderon jazotakoa, agian bortxatua da eta gertakari sinpleen kontaktak berez ez du irakurlea harrapatzen; bestalde, baina, kapitulu laburrez osaturik egoteak lagundu egiten du eta nobela erraz irakurtzen da; erraz eta harridura puntu batekin, Nùria Fortunyren irudiek sortzen duten harriduraren antzeko puntuarekin. ■

Xabier Etxaniz Erle



1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia